
2008RAKO ERAGIKETA ESTADÍSTIKOAK

2.- DEFINIZIOAK

2.1.- ARTEAK

Antzerkia

Arte eszenikoen ekoizpena

Edozein genero eszenikoren ekoizpena (antzerkia, opera, dantza, zirkoa, magia, antzerki musikala, txotxongiloak eta bestelako genero eszeniko txikiak).

Arte eszenikoen agente ekoizlea

EAEEn egoitza duen erakunde publiko edo pribatua, zeinaren ekimenez eta ardurapean obra eszeniko bat ekoizten baita.

Zehaztapenak:

- Agente ekoizle profesionalak bakarrik hartzen dira aintzat. Hortaz, zehaztapen horretatik kanpo geratzen dira amateurren taldeak.
- Urtean gutxienez 6 emanaldi egin dituzten agente ekoizleak bakarrik hartzen dira kontuan.
- Gutxienez azken hiru urteetan ikuskizunen bat ekoizti dutela egiaztatzen duten agente ekoizleak bakarrik hartuko dira aintzat.

Arte eszenikoen programatzaileak

Antzokia

Edozein ekoizpen eszeniko mota erakusteko beharrezko baldintza teknikoak betetzen dituen azpiegitura iraunkorra. Ikuskizun eszenikoak, batez ere profesionalak, programatzea da espazio horren erabilera nagusia.

Zehaztapenak:

- ▀ Urte osoan zehar banatuta gutxienez hiru ikuskizun profesional programatzen dituzten antzokiak bakarrik hartuko dira kontuan.
- ▀ Antzokien jardueraren barruan, amateurren ikuskizunak aintzat hartuko dira, baldin eta programazioa halako ikuskizunek soilik osatzen ez badute. Kasu horretan, antzokia eragiketa estatistikotik kanpo geratuko da.
- ▀ Antzokien jardueraren barruan, arte eszenikoen eta musikaren programazioa bakarrik hartuko da kontuan. Hortaz, kanpo utziko dira zinema, hitzaldiak, bilerak eta bestelako ekitaldiak.

Jaialdia

Normalean jakineko genero baten inguruan egituratzen den iraupen mugatuko programazio eszenikoa, oro har, hainbat espaziotan erakusten dena (antzokiak, gizarte-etxeak, elizak, kaleak eta plazak, eta abar).

Zehaztapenak:

- ▀ Arte eszenikoen jaialdiak bakarrik hartuko dira aintzat, nahiz eta horietako batzuetan, modu osagarrian, kontzertuak edo musika-jardueraren bat egon daitekeen. Hortaz, kanpo uzten dira programazio musikala soilik duten jaialdiak.
- ▀ Jaialdietan, programazioa hainbat tokitan erakusten da. Antzokietan egiten diren ikuskizunak bi aldiz zenbatuko dira. Nolanahi ere, kasu horretan, erraza izango da kontaketa bikoitza hautematea.

Arte plastikoak eta ikus-arteak

Arte-galeriak

Jendeari irekitako esplotazio pribatuko establezimenduak dira. Haien jarduera nagusia arte-lanak erakustea eta saltzea da, eta, hein batean, arte-sorkuntza bultzatu, eta artea, artistak eta haien lanak sustatu ere egiten dute.

Zehaztapenak:

- Arte-galerien barruan, artisten lantegiak edo *atelier* direlakoak ere aintzat hartuko dira, betiere jendearentzat irekitako espazioak badira eta bisitariak sartzea onartzen badute artistaren lana erakusteko eta saltzeko.
- Ez dira arte-galeriatzat joko antzinako gauzak soilik saltzen dituztenak.

Erakusketa-espazioak

Jendearentzat irekitako esplotazio publiko edo pribatuko establezimenduak. Horien jarduera nagusia arte-lanak erakustea da.

Zehaztapenak:

- Erakusketa-espazioen barruan ez dira sartuko museoen barruan dauden erakusketa-espazioak.
- Erabilera anitzeko espazioen barruan dauden erakusketa-espazioak hartuko dira kontuan.
- Erakusketa-espazioen jardueraren barruan, artista profesional eta amateurren erakusketak hartuko dira aintzat, betiere urtean gutxienez bi erakusketa profesional baldin badaude.

Ikus-entzunezkoen ekoizleak

EAEEn egoitza duen erakunde publikoa edo pribatua, jarduera nagusitzat edozein motatako eta edozein euskarritako zinema-ekoizpena duena.

Zehaztapenak:

- Azken bi urteetan filmen bat ekoitzi duten ikus-entzunezkoen ekoizleak bakarrik hartuko dira kontuan.
- Enpresa-izaerako edozein ikus-entzunezko produktu ekoizten duten ekoizleak baino ez dira hartuko aintzat. Hortaz, bai zinemako ekoizleak eta bai telebistako edo beste bide batzuetako ekoizleak ere barne hartuko dira.

Diskoetxeak edo antzerakoak

EAEEn egoitza duen erakunde pribatua, jarduera nagusitzat edozein motatako eta edozein euskarritako fonograma-ekoizpena duena (biniloak, CDak, beste euskarri batzuk eta abar).

Zehaztapenak:

- Azken 2 urteetan diskoren bat argitaratu duten diskoetxeak bakarrik hartuko dira aintzat.